



## INNOBIDEAK INNOKONEXIO

### **ENTIDAD:**

SPRI

### **PLAZO DE SOLICITUD:**

30/05/2023 – 19/10/2023

### **PLAZO DE EJECUCIÓN DE LOS PROYECTOS:**

12 meses desde solicitud

### **PORCENTAJES DE AYUDA:**

50%

### **OBJETO:**

Apoyo a la realización de Proyectos de Innovación que ayuden a consolidar la gestión y sistematización de la innovación en las organizaciones y así incrementar la base de empresas innovadoras de la CAE.

### **HECHOS SUBVENCIONABLES:**

Tendrán la condición de actuaciones subvencionables, bien en forma individual o en cooperación, la realización de proyectos que permitan:

- La Innovación en producto (bienes o servicios). Bien o servicio nuevo o mejorado que difiere significativamente de los bienes o servicios previos de la empresa y que va a ser introducido en el mercado. El Nuevo Producto y/o servicio deberá encontrarse en un estadio, bien de definición conceptual, previo a cualquier etapa de investigación y/o desarrollo, bien en un estadio de aproximación y llegada al mercado, en el que la etapa de investigación y/o desarrollo ya hubiere sido superada, con lo que el riesgo tecnológico ha de ser nulo o ampliamente acotado.
- La Innovación en procesos de negocio. Proceso de negocio nuevo o mejorado para una o más funciones de negocio que difiere significativamente de procesos de negocio anteriores de la empresa y que va a ser implementado en la empresa. Cuando la innovación en Proceso tenga como finalidad su venta, licencia, implantación, o cualquier otra finalidad orientada a terceros,

dicha innovación supondrá un nuevo producto o servicio para la empresa beneficiaria, por lo que tendrá la consideración de una Innovación en Producto.

- El impulso a la participación en propuestas de proyectos en el marco de las convocatorias sobre Investigación e Innovación promovidas por la Comisión Europea.
- La Protección y valorización de los resultados de I+D+i.
- Implantaciones dirigidas a conseguir una Gestión Avanzada en la compañía - Kudeabide y que respondan a un proceso de reflexión previo (Informe de Contraste Inicial de Gestión Avanzada, Diagnóstico de Gestión, Plan Estratégico o Plan de Gestión).

### **Gastos elegibles:**

a) Gastos de asesoramiento para la obtención, validación y defensa de patentes y otros activos inmateriales.

b) Gastos de servicios de asesoramiento y apoyo en materia de innovación proporcionados por:

- Empresas expertas externas a la empresa solicitante, en el ámbito del proyecto presentado y efectivamente involucradas en la ejecución del mismo.
- Agentes Intermedios, para las tareas de configuración, dinamización y coordinación de proyectos en cooperación.
- Empresas expertas externas y Agentes de la Red Vasca de Ciencia y Tecnología, para impulsar la participación en propuestas de proyectos en el marco de las convocatorias sobre Investigación e Innovación promovidas por la Comisión Europea.

### **ENTIDADES BENEFICIARIAS:**

Pymes industriales y de servicios conexos ligados al producto-proceso industrial, ubicados en la CAPV y que cuenten en el periodo de 12 meses previos a la presentación de la solicitud de subvención, una plantilla media de al menos 10 empleos. Para el caso de proyectos de implantaciones dirigidas a conseguir una Gestión Avanzada en la compañía (Kudeabide) deberán disponer de una plantilla media de al menos 50 empleos.

### **CUANTÍAS MÁXIMAS:**

250.000 euros para proyectos individuales y 500.000 euros para proyectos en cooperación.



*Grupo Cei cuenta con tarifas especiales para todas aquellas entidades que estén asociadas a Cebek. Para la gestión integral de esta ayuda, ellos se encargan de realizar un presupuesto a medida de cada empresa y proyecto teniendo en cuenta las tarifas especiales definidas en nuestro acuerdo de colaboración.*

## INNOBIDEAK – INNOKONEXIO

**ERAKUNDEA:** SPRI

**ESKAERA EGITEKO EPEA:**

2023/05/30 – 2023/10/19

**PROIEKTUAK GAUZATZEKO EPEA:**

12 hilabete, eskaera egiten denetik.

**LAGUNTZAREN PORTZENTAIA:**

%50

**XEDEA:**

Berrikuntza Proiektuak egitera bideratutako laguntza-programa bat arautzea da oinarri hauen helburua. Berrikuntza Proiektu horiek erakundeetan berrikuntzaren kudeaketa eta sistematizazioa finkatzen lagunduko dute eta, modu horretan, EAEko enpresa berritzaileen oinarria handitzen lagunduko dute.

**DIRUZ LAGUN DAITEZKEEN JARDUERAK:**

Honako hauek ahalbidetzen dituzten proiektuak, banakakoak edo lankidetzan eginak, lagun daitezke diruz:

- Produktuaren berrikuntza (ondasunak edo zerbitzuak). Ondasun edo zerbitzu berria edo hobetua, enpresak lehendik zituen ondasunen edo zerbitzuen oso ezberdina, eta merkatuan txertatuko dena. Produktu eta/edo zerbitzu berriak honako fase hauetakoren batean egon beharko du: definizio kontzeptualeko fasean, edozein ikerketa- eta/edo garapen-etapa baino lehen, edo ikerketa- eta/edo garapen-etapa gainditu eta merkatura hurbiltzeko eta iristeko fasean, eta, beraz, arrisku teknologikoak nulua edo oso mugatua izan beharko du.
- Negozio-prozesuen berrikuntza. Prozesuaren berrikuntza Negozio-funtzio baterako edo gehiagotarako negozio-prozesu berria edo hobetua, enpresak lehendik zituen negozio-prozesuen oso ezberdina, eta enpresan ezarriko dena. Prozesuaren Berrikuntzaren helburua salmenta, lizentzia, ezarpena edo hirugarrenei zuzendutako beste edozein helburu denean, berrikuntza hori

produktu edo zerbitzu berri bat izango da enpresa onuradunarentzat, eta, beraz, Produktuaren Berrikuntzat hartuko da.

- Europako Batzordeak sustatzen dituen Ikerketa eta Berrikuntzari buruzko deialdien esparruan, proiektuen proposamenetan parte hartzea sustatzea.
- I+G+b emaitzen babes eta balorizazioa.
- Erakundean Kudeaketa Aurreratua lortzera bideratutako ezarpenak (Kudeabide), aurrez egindako hausnarketa-prozesu bati erantzuten diotenak (Kudeaketa Aurreratuaren Hasierako Kontraste Txostena, Kudeaketaren Diagnostikoa, Plan Estrategikoa edo Kudeaketa Plana).

### **Gastu hautagarriak:**

a) Patenteak eta beste aktibo immaterial batzuk eskuratzeko, baliozkotzeko eta babesteko aholkularitza-gastuak.

b) Berrikuntzari buruzko aholkularitza-zerbitzuen eta laguntza-zerbitzuen gastuak, honako hauek eskaintzen dituztenean:

- Aurkeztutako proiektuaren alorrean adituak diren eta proiektu horren exekuzioan parte hartu duten enpresak, enpresa eskatzailearen kanpokoak direnak.
- Tarteko agenteak, lankidetzaren proiektuak konfiguratzearekin, dinamizatzearekin eta koordinatzearekin lotutako zereginetarako.
- Kanpoko enpresa adituak eta Zientziaren eta Teknologiararen Euskal Sareko agenteak, Europako Batzordeak sustatzen dituen Ikerketa eta Berrikuntzari buruzko deialdien esparruan, proiektuen proposamenetan parte hartzea bultzatzeko.

### **ERAKUNDE ONURADUNAK:**

Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako ETE-ak (Enpresa Txiki eta Ertainak), industria arlokoak eta produktu-prozesu industrialekin lotutako zerbitzuak eskaintzen dituztenak, dirulaguntzaren eskaera aurkeztu aurreko 12 hilabeteetan, gutxienez, 10 langileko batez besteko plantilla badute. Enpresan Kudeaketa Aurreratua (Kudeabide) lortzera bideratutako ezarpen-proiektuen kasuan, gutxienez, 50 langile izan beharko dituzte, batez beste.

### **GEHIENEN ZENBATEKOAK:**

250.000 euro bakarkako proiektuentzat eta 500.000 euro lankidetzan egindako proiektuentzat.



*Grupo Cei enpresak tarifa bereziak ditu Cebekeko kide diren erakunde guztientzat. Laguntza hori osorik kudeatzeko, haiek arduratzen dira enpresa eta proiektu bakoitzaren neurrira egindako aurrekontu bat egiteaz, gure lankidetzaren hitzarmenean zehaztutako tarifa bereziak kontuan hartuta.*